

Asisko gutuna

2010eko azaroa. 1. printzipioa. Eguteroa bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 25. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarea lau printzipioen gainean dabil jirabiran. Hil bakoitzean, printzipio horietako bat lantzen du Gutun honetako testuak ikuspuntu ezberdin batetik. Horrela, lau hilez behin printzipio berera itzultzen gara. Azaro honetan lehenengora gatzoz berriro: egutero, Jainkoarekiko harreman

pertsonala landu. Gutun hau 25.a da. Beraz seigarren aldiz dihardugu printzipio honetaz. Oraingo honetan, Jainkoarekiko harreman pertsonalari buruzko gogoetari ikuspuntu honetatik heltzen zaio: harreman horri Hitzak eta Ebanjelioak egiten dion ekarpenetik.

Gogoetarako gaia

Hitza bizi dela, entzuten dugu

Kristau federa hurbiltzen garenean, sarriro ulertezina egiten zaigun mundu batekin aurkitzen gara. Biblia gerta dakiguke, oro har, ulertzeko testu zaila. Ebanjelioak ere, kasu konkretuan, izan dakizkiguke arrotzak, orain bi mila urte gizon batzuek idatzitako liburuak, beroriei beste batzuek bizitza aldatu zien beste gizon baten historia kontatu zitzaielarik.

Hala ere liburu horiek bizi-iturri izan dira hainbat gizakirentzat, bi mila urte hauetan. Zer esan nahi du, Hitz hori bizi-iturri dela esateak? Nola sortzen du bizia honelako liburuak irakurtzeak?

Hori jakiteko, nahitaez irakurri egin behar da Ebanjelioa eta bertako hitza entzun. Ebanjelioa hartu eta irakurtzeak, Jesusen historian sartuz joateak, apurka, testuak gordetzen duen sakontasuna argitara atera ahal izatea emango digu. Nahiz eta hasieran agian ez asko ulertu, poliki-poliki aurki ditzakegu bihotzera iristen zaizkigun hitzak, adostasunera erakartzen eta on egiten diguten esaldi eta gertaerak.

Horrela Jesusen bizitzara hurbilduz goaz, eta ustekabean aurki gaitzake geure barne-barneko egia-eta betetasun-ametsekin komunikazioan. Errenka

artean aurki gaitzake Haren bizitzak hedatzen duen espiritu, esperientzia eta barne-argiarekin. Topatzen ditugun hitz batzuek bihotza arintzen digute, egoera zailentzat esanahia aurkiarazten, bidea erakusten edo nahigabea kontsolamendua ematen. Jesusen pertsonarekin aurkitzen garenean, giza izakiaren alderik onenera hurbiltzen gara eta daukagun alderik onena pizten zaigu. Ebanjelioak hitz ematen digunak itxaropena mantentzeko ahalmena ematen digu.

Ebanjelioko hitza, maitasunaren bidez historia aldatzen duten gertaera batzuen lekukotasuna da. Asisko Frantziskok eta beste lekuko handiek hitz horrek duen Berri Onaren esanahi sakona aurkitzen eta erakusten dute: bizitzak dituen babes-falta guztiak gorabehera, beti daukagu Jainkoaren maitasunaren babesa.

Ebanjelioa Jainkoak hitz emandakoa da. Ebanjelioko testuen bidez Jainkoak bere maitasuna erakusten digu. Jesusen bizitzaren bitartez sar gaitzake Jainkoaren bihotz errukiorraren barnean. Hitza entzutea bizia aurkitzea bihurtzen da. Hitz biziak bizitza elikatzen du, interpelatu egiten gaitu, liberatu, norabidea ematen digu eta moldea ematen dio existentziari.

Ebanjelioko pasartea: Hb 4, 12-14

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eragin handikoa, aho biko ezpata bera baino sarkorragoa: gogo eta espirituaren sakon-sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutueneraino, eta barneko pentsamendu eta asmo guztiak miatzen ditu. Ez da harentzat munduan ezer gorderik; dena

dago agerian eta zabalik, kontuak eman beharko dizkiogun harentzat.

Beraz, gure apaiz nagusi handia, Jesus Jainkoaren Semea, zeruan sartua dugunetz gero, euts diezaigun sendo aitortzen dugun fedeari.

Frantziskotar pasartea

Frantzisko bila eta bila zebilen, Absolutuarenganantz doan errones gisa, bere bizitzaren nondik norakoa izango zen Harekin topo egiteko arduraz eta irrikaz. Jainkoaren Hitza izan zen azkenean sosegua eta konfiantza eman ziona: "hauxe da nahi dudana, hauxe bilatzen dudana, hauxe bihotz bihotzez egitea irrikatzen dudana", esan zuen Frantziskok misiorako ebanjelioa entzutean, Portziunkulako elizan (ik 1 Zel 22).

Hortik abiatu zen Frantziskoren existentzia berria, orain Hitzak, beti presente eta presentean dagoen hitzak, argitua eta sostengatua. Harrezkero Frantziskok bere miseria oihukatzen du eta bere konfiantza kantatzen, beti Jainkoaren hitz bizi eta eraginkorren oinarriturik.

Jesusen Ebanjelioa, Jainkoaren maitasun ulertezina kontatzen duena, izango da Frantziskoren, eta berari jarraitu nahi diotenen, bizitza-gidatzaile eta sekretu.

Jainkoaren hitza izango du, orobat, bide-erakusle eta sostengatzaile bizitza osoko momenturik erabakigarrienean, gorputzeko arreba heriotzari harrera egiteko orduan: salmoetako hitzean oinarriturik onartu zuen hura eta bere Kristori eztiki eta amoroski kantatuz (Ik 1 Zel 110).

118 Salmotik

Nire pausoentzat kriseilu da zure hitza,
nire biderako argi.
Zin egin dut eta tinko nago
zure erabaki zuzenak gordetzeko asmoan.
Biziki atsekabeturik nago, Jauna:
babestu nire bizia, zeure promesaren arabera!

Har itzazu onez, Jauna, nire otoitzak
eta ezagutarazi niri zeure erabakiak.
Nire bizia beti arriskuan dagoen arren,

ez dut zure irakaspena ahazten.
Gaiztoek tranpa jarri didate;
ni, ordea, ez naiz zure legeetatik okertu.

Zure xedapenak dira nire ondare betiko,
beraiek baitidate barrua pozten.
Zure arauak betetzera makurtzen dut gogoan:
nire sari dira betiko.

Gutuneko azken hitzak

Entzuten, esaten, idazten, irakurtzen nahiz sentitzen den hitza, batez ere egiazko historia baten lekukotasuna dakarrenean, interpelazio egiten da, balio handia du egiaren bilaketarako eta bide ona da sinesten duguna baino gehiago aurkitzeko.

2010eko abenduko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduko erreferentzia guztiak:

1 Mt 15, 29-37	8 Lk 1, 26-38	15 Mt 7, 19-23	22 Lk 1, 46-56	29 Lk 2, 22-35
2 Mt 7, 21. 24-27	9 Mt 11, 11-15	16 Lk 7, 24-30	23 Lk 1, 57-66	30 Lk 2, 36-40
3 Mt 9, 27-31	10 Mt 11, 16-19	17 Mt 1, 1-17	24 Lk 1, 67-79	31 Jn 1, 1-18
4 Mt 9, 35-10, 1. 6-8	11 Mt 17, 10-13	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-18	
5 Mt 3, 1-12	12 Mt 11, 2-11	19 Mt 1, 18-24	26 Mt 2, 13-15. 19-23	
6 Lk 5, 17-26	13 Mt 21, 23-27	20 Lk 1, 26-38	27 Jn 20, 2-8	
7 Mt 18, 12-14	14 Mt 21, 28-32	21 Lk 1, 39-45	28 Mt 2, 13-18	

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2010eko azaroa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea

Jainkoarekin harreman pertsonala 25. zenbakia

Sareko lehen printzipioak, egunero Jainkoarekin harreman pertsonala bilatzera gonbidatzen gaitu. Modu ezberdinak ditugu Jainkoarekin harreman pertsonalean jartzeko. Gaur Hitzaren bidez otoitz eta gogoeta egitea proposatzen zaigu, hain zuzen Jainkoak berak Ebanjelioaren, bere Berri Onaren, bidez ematen digun Hitzaz. Jaunaren Hitz horretan bilatuko dizkiegu erantzunak bizitzari eta bizitzaren norabideari buruzko galderei, horrela Hitz hori gudan BIZI egin dadin.

Hitza bizia dela entzuten dugu

Gure bizitzan gida eta argi izan behar duen liburua da Biblia, sarritan ezagutu eta aurkitu gabe daukaguna.

Itun Zaharrean, Jainkoak Israel herrian egindako salbamen historia kontatzen zaigu. Salbamen historia hori geure egin behar dugu. Aurkitu dugu Jainkoaren salbamen hori geure historian?

Ebanjelioak aldatu egiten du pertsonen historia, beraien bihotza aldatuz. Ez da bizitzeko “errezeta” ematen digun liburua, baizik eta Jesusekin harremanean jartzeko liburua, Haren Bizitzaren bitartez; Haren Hitza entzunez, bera bihurtuko zaigu gure existentziaren oinarri eta zentro, geure bizitzari nondik norakoa emateko.

Zer da niretzat bizia edukitzea, BIZITZEA? Non bilatzen dut neure bizi-iturria? Hitzaren bidez Jainkoak niri hitz egiten dit, eta gutako bakoitzari.

Erabil ezazu otoitzaldi bat zera aurkitzeko: zein da une honetan Biblian, Bizi hori ematen dizula sentitzen duzun pasartea, Jainkoaren maitasuna hitz ematen dizuna, zeure bizimodua aldatuz joango dena, zeure bihotza aldatzen uzten badiozu.

Hb 4, 12-14

Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eragin handikoa. Zer esanahi dute zuretzat hitz horiek? Zer sentiarazten dizu, barneko pentsamendu eta asmo guztiak miatzen eta epaitzen dituela entzuteak? Izua sartzen dizu ala bakea ematen? Zergatik?

Testuaren arabera, Jainkoak ez die gure egintzei begiratzen, haiek egitera eraman gaituen asmoari baizik.

“Nondik” da galdera, eta bihotzak duen asmoarekin aurkituko gara.

Hitzak bizia dauka, pertsonak eta haien bihotzak aldatu ahal izateko, zeruan sartu den eta gu ere hara eraman nahi gaituen Jesus Jainkoaren Semearengan sinesten sendo jarraitzen dutenean.

Espiritualitate frantziskotarra

Frantziskok Ebanjelioan aurkitu zion erantzuna, bizitzan bilatzen zuenari. Ebanjelioa irakurriz aurkitu diozu inoiz erantzunik, zeure buruari egiten dizkiozun galderei?

Frantziskok, bere bizitzari norabidea eman zion erantzuna aurkitu zuen, eta une horretatik aurrera Hitza izan zuen gidari, baita heriotzako unean ere (Jn 12,1-13,1).

Gabiltzan gu ere, Frantzisko bezala, bila eta bila Hitz horretan, Argi eta Bizi bihur dakigun arte.

Zorionekoak Jaunaren legea jarraitzen dutenak

Hitza guretzat bizi izan dadin, hitz horrek kriseiluaren argi izan behar du guretzat, eguneroko ibilbidean gure urratsei argi egin diezaien.

“Nire bizia beti arriskuan dago”, beti “kolokan” gabiltza, gauza askok eramaten gaitu arrastan, baina bihotzaren muinean Jainkoaren nahia egin nahi dugu. Badakigu hori dugula geuretzat onena, eta badakigu, halaber, nahi hori askotan zail egiten zaigula.

Jainkoaren nahia egiteak poza emango dio gure bihotzari eta norabidea geure bizitzari.